

IBILGAILUAK KONPONTZEKO TAILERRAK



Aurrekontua eta gordailuaren frogagiria

Eskubidea duzu **aurretiazko aurrekontu** bat idatziz jasotzeko, gutxienez **12 egun** balioduneko indarraldia izango duena. Onartzen ez baduzu, tailerrak ibilgailua utzi zenuen **baldintza beretan** itzuli beharko dizu.



Ibilgailuaren **gordailuaren frogagiri** bat eskatu, honako hau adieraziko duena: **arrazoia**, **entrega-epa** eta dauzkán kilometro kopurua.



Konponketa egiterakoan **matxura berriak** atzematen badituzte, gehienez **48 orduko** epean adierazi eta zer **koste** izango duten jakinarazi beharko dizute. **Soilik zure baimenarekin** egin ahalko dituzte konponketa horiek.



Erreklamazio-orria



Eskatzen duzun unean eman beharko dizute. Bat betez gero, aurkeztu ezazu ibilgailua jaso den unetik edo bermearen amaieratik zenbatzen hasita, gehienez bi hilabeteko epean.

Bereizgarri ofizialaren bidez, kontsumoko arbitrajeari atxikitako enpresak ezagutuko dituzu.

Bermealdian, ez duzu ezer ordaindu beharrik

Barnean hartzen ditu **materialak**, **eskulana** eta **gastu gehigarri** guztiak, adibidez, ibilgailuaren garraioa edo langileen joan-etorriak.



Konponketaren gutxieneko bermea honako hau da:

- ⚙️ **Hiru hilabete** edo egindako **2.000 kilometro**.
- ⚙️ **Ibilgailu komertzialak**: **15 egun** edo egindako **2.000 kilometro**.

Erabilitako **piezek** epe luzeagoa baldin badute, **epe luzeana** gailentzen da. Bermearen epea **ibilgailua ematen den unean hasten da indarrean**, eta baliotasuna galtzen du ibilgailua hirugarren pertsona batek manipulatu gero.

! **Beti faktura eman** beharko dizute. Horri esker bermea erabili ahalko duzu. **Gorde ezazu dokumentazio** guztia (aurrekontua, deposituaren frogagiria, jasotze-data...).